

Gernikako su gorria

Euskaldunon Egunkaria, 1995-04-25: 2.

Orain egun batzu gure erdal telebistako "Toma y daca" programan esan zirenak franquismoan esateko modukoak izan omen ziren. Entzun zituenik bada, noski, eta belarrien eskandalu honetatik jakin dugu ez dela sekula Euskal Herri osorik izan, ezta bere hizkuntzaren zapalkuntzarik ere, eta euskal izenen debekurik ez. Hau gaurko patxaratik esatea zentzugabea da, zeren eta azken hirurogei urte hauetan hemen bizi izan den edozeinek eman ditzake gertakari hauen frogak. Sasoiko prentsan eta agirietan idatziak ugari geratu direnak, baina batez ere ñabardura asko eman dezaken eskarmentu pertsonalak. Denok gezurretan ari gara, agian! Juduen aurka dagoen joko bera darabilte nazi berri hauek: Euskara inoiz zapaldu gabe dago gogorki zauritua. Ez da horregatik bakarrik gaixotu, euskaldun txepelak ere izan ditugu. Euskaldunok ez gara errugabeak, gaur bertan ikusi ahal izan ditugu bizirik lan honetan ari direnak; baina norbaitek bere hizkuntzari eutsi badio, euskalduna izan da sei mila urteko historian zehar! Gezurrak zango laburrak ditu. Gernikako su gorriak izan zituen bezala. Sute ikaragarri hura ere gorriak ginen guauek piztu genuela esan zutenean ni hamabost urteko haurra nintzen, baina lekuko naiz, su hartatik bizirik irten ziren nere senide eta lagunak ez zidaten gezurrik esan, eta gero laster alemaniarrek berek aitortu behar izan zuten. Nork ukatzen du gaur egia hau? "Toma y daca"-n norbaitek, agian.